

Mikel Laboa katedrak euskal kantagintzaren azterketa bultzatuko du

Marisol Bastida kantariaren alargunaren memoriak kaleratuko ditu Elkarrek, euskaraz eta gaztelaniaz, ekainean

Igor Susaeta Donostia

Euskal Herriko Unibertsitateko EHUko Mikel Laboa katedrak euskal kantagintzaren ehun diskoren azterketa egingo du datozen hiru urteetan, *Badok.info* atariarekin elkarlanean. Hori da katedrak 2014rako aurkeztutako egitasmoen zutabeetako bat, sorkuntza jardueri dagokienez. Gainera, laster, ekainean, Marisol Bastida Laboaren alargunaren memoriak kaleratuko ditu Elkar

argitaletxeak, euskaraz eta gaztelaniaz, bi liburutan. Ikerketa jardueren alorrean, bestetik, doktore tesiak egiteko hiru kontratu, lan monografikoak egiteko lau diru laguntza eta arte sormena bultzatzeko beste bi diru laguntza deialdi hauspotuko ditu katedrak aurten.

Juan Kruz Igerabide katedraren zuzendariari iruditzen zaio apustu indartsua dela *Badok.info* euskal kantagintzaren atariarekin batera egindakoa. «Aditu dezentek parte hartuko dute». Jon Eskisabel kazetaria arduratuko da koordinatzeaz.

Epe luzerako proiektua da hori, ordea. Lehenago, udazkenean, *Shakespeare-Infernu horiek* disko-liburua aurkeztuko du katedrak. Idazle ingelesaren soneto

guztiak itzuli ditu Juan Garziak, eta euskalgintzako 150 lagunek errezipatu dituzte —Harkaitz Canok, Andoni Egañak, Eider Rodriguezek, Uxue Alberdik, Juan Luis Padronek...—; Joxan Goikoetxeak, gainera, horietako batzuei musika jarri die. «Horri azken errematea ematea besterik ez da falta», azaldu du Igerabidek. Urtarrilean, gainera, emanaldi bat egin nahi dute, Donostiako Viktoria Eugenia antzokian edo Antzoki Zaharrean. «Joan den abenduan proba bat egin genuen, eta oso txukuna geratu zen. Aukera asko ematen ditu».

Bastidaren memoriak Laboa «gertu-gertutik» ezagutzea ahalbidetuko dute. «Marisolen [Bastida] bizipenetatik abiatzen da, baina Laboak enbortzen ditu memo-



Amaia Maceda, Ikerne Badiola, Juan Kruz Igerabide, Marisol Bastida eta Gidor Bilbao, atzo, 2014ko jardueren aurkezpenean. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

riak». Igerabideren iritziz, hurbilketa interesgarria da 60ko hamarkada ulertu ahal izateko. «Aproposa da jende guztiarentzat».

Laboari berari buruzko webgunea ere estreinatuko dute, Bastidak garai batean prestatutako biografian oinarrituz, baina hori are gehiago zehaztuz. «Atalka banatuta dago, orduko argazkiekin eta. Laboaren disko oinarritzko batzuk entzuteko aukera ere ema-

ten du». Igerabiderentzat, sekulako altxorra da ikertzaileentzat.

Ikerketa jardueri buruzko eskakizunak eta epeak kontsultatu ahal izateko, jo helbide honetara: www.ehu.es/eu/web/laboakatedra.

@ Laboari buruzko ataria bisitatzeko, jo helbide honetara: www.mikel-laboa.com